

(1) OHARRAK.. Sagardoari buruz monografikoa argitaratzekotan den taldeari.

a) Gure lan hontan, bai sintaxi mailan, bai gramatika mailan, akats ugariak isango direlaotan gaude. Alde zuena zuzendu, zeren eta presaka egindako lana duzu. Sentitzen duzu baina lanpetuak gabiltza. Beste baterako denbora gehiago isango dugunean gaude. Esan beharra daukagu presto gaudela beste baterako ere.

b) Hor bidaltzen dituzun bi argastkiak itzultzea eskatzen dugu.

ASTIGAR ELKARTEA





ASTIGAR ELKARTEA

Mirasol egoitza behea

ASTIGARRAGA

SAGARDO

HISTORIA

ASTIGARRAGAN ⁽¹⁾

SARRERA

Ez dugu beste munduko gauzarik esaten, bizidunek bizitaeko jan-edan egin behar dutela esaten badugu. Eta nola ez, pertsonak egin behar hortan sartzen dira. Pertsonak bere izaeratik jan-edan egiten du. Zer jan? Zer edan? Guk edariari helduko diogu, gure lantxo hau hortan doa-ta.

SAGARDO HISTORIA

Ez zaitzu zaila izango asmatzea, lehen gizonek ura edaten hasiko zirela bere egarriak asetzeko, baina gustokoa ez zuen izango nonbait eta ... lurrak ematen zieten igarriekin bere probak egiten hasiko zirela eta horrela halako batean sagarrarekin bere proba egin ondoren, sagar zumea sagardotan biturterako fenomeno asmatuko zutela. Sagardoa horrela sortua izango dela pentsatzea asmatzea izango denean gaudu.

Noiztik Astigarragako herriak ~~edaten duen~~ sagardoa edaten duen, oraindik ez dago aztertua eta ez da erraza izango jakitea, zeren eta edaten hasiko zirenetik ez dagoelako idatz-dokumenturik. Beti entzun dako gauza da, aspaldikoa dela. Noizkoa?

Nahiz eta gaurko egunean 14 sagardotegi herriari idetkiak egon, beste hamaitzako badira baserrietan bere tolarre kokatuta daukatena eta etxeko sagarrarekin etxerako sagardoa egiten dutena. Garai bateko sagardotegiak hiruropeitiko gora jasoak ditugu eta jakina sagardotegile askok bere sagardoa etxetik aparte saltzera eramaten zuten Kapeletan, hots, Donostiara, Lasartera, Urrietara, ... eta baita ~~ere~~ Tolosara ere. Hau da, sagardotegile batek bi eta hiru sagardotegi zuten leku ezberdinetan.

Zaharrak diotenez bere garaian Astigarragako lur guztiak — Eriberak kenduta — sagastiak ziren eta "Pablo Gorosabelök dionez bere DICCIONARIO HISTORICO - GEOGRAFICO ... 1862. go urtean", Astigarragako industria sagardotegintza zen.

SAGARDOTEGIAK BERTSOLARI ESKOLAK

Majina bat bertso bota arazitako sagardoa!

Nor ez ote da ahalegindu sagardotegi batean bertso bat botatzen edo osatzen. Majina bat bertsolari irtenlako sagardotegiak. Garai bateko bertsolari eskolak eta gaurko egunean ere lan hori betetzeko leku egokiak.

Esan beharra dago, Astigarragan bertsolari giron eragutu dela nahiz eta orain galdua egon. Hemengo sagardotegi batean, Tximita handia apopilo egon zen eta esan digutenez, bertso ugaria botea da. Kontutan hartzen badugu, garai hartan sagardotegietan ibiltzeko ordu-ohiturak egun osoa izaten zela, ez da arrokaria imajinatzea zenbat bertso bota diren Astigarragako sagardotegietan.

Hemiko bertsolariak ere esagunak dira, hara nola, LARGA eta ELIO, sagardotegietan hain esagunak.

Miguel Arozamena bertsolaria ere hemen bizi zuen, asko ibilia duzu sagardo probaketan eta, nola ez, bertso asko botea. Bere garaiko sagardotegiei ere bertso batzuk jarriak baditu eta hor azaltzen dira "Auspoa" bilduman 127 zenbakian. Bertso hauek eta bere biografia hemen deskribatzen.

SAGAR MOTEN ZERREDA

<u>SAGAR MOTA</u>	<u>SAGARRAREN AHO-GOZOA</u>
ABAUÀ	GEZA
AIZPURU	GEZA
ALDAKO	GAZI-GEZA
AMA BIRGINA	GAZI-GOZOA
ANDOAIN	GEZA
ARITZA	GAZI-GARRATZA
BALANZATEGI	GEZA
BAZTAN-GORRIA	GEZA
BAZTAN-ZURIA	GEZA
BERRONDO	GAZI-GOZOA
BIKARIO	GEZA
BORDA-BERRI	GAZI-GOZOA
BURNI	GOZOA
ERREGE	GAZIA
ERREGE-GAZI	GAZI-GARRATZA
ERREGE-TTIKI	GAZI-GARRATZA
ERREZIL	GAZIA
ESPURUA	GEZA
GAZI-GORRIA	GAZIA
GEZA-GORRIA	GEZA
GEZA-MIÑA	GARRATZA
GOIKOETXEA	GAZI-GARRATZA
GOLDEN (1)	GOZOA
KAMUTZA	GEZA
KANPANDOJA	GAZIA
LIBRA	GAZIA
LOPETEGI	GAZI-GOZOA
MAUTTONI	GAZI-GOZOA
MARTIKU	GOZO-GEZA
MENDIOLA	GAZIA
MERKADER	GOZOA
MERKALIN	GARRATZA
MOKOTE	GEZA
MOTRIKO	GOZO-GEZA
MOXOLUA	GEZA
PALAZIO	GEZA-GARRATZA
PATZULO	GEZA
PELESTIN	GAZI-GOZOA
PIKU	GEZA-GARRATZA
POTROKILLO	GEZA
SAGAR-BELTZA	GARRATZA
SAGAR-GORRIA	GAZIA
SAGAR-MIÑA	MIKATZA
SAGAR-ZURIA	GEZA
SAN JUAN	GOZOA
SAN PEDRO	GOZOA
-	GAZI-GOZOA

<u>SAGAR MOTA</u>	<u>SAGARRAREN AHO-GOZOA</u>
TXALAKA	GAZIA
TXORI	GOZOA
TXURTEN-LUZE	GAZI-GOZOA
UDARE	GAZIA
UGARTE	GARRATZA
URDAN-ITTURRIA	GEZA
URDIN	GAZI-GOZOA
URKOLA	GAZIA
URTE-BI HAUNDIA, (Oria)	GAZI-GOZOA
URTE-BI TTIKIA, (Zuria)	GAZI-GOZOA
ZELAI	GAZI-GOZOA

Oharra: (1) Sagar mota hau, azkeneko urte hauetan Kanpotik sartua dugu Euskal Herira.

AHO-GOZOK SAILKETA

GARRATZAK	4
GAZIAK	9
GAZI-GARRATZAK	4
GAZI-GEZAK	1
GAZI-GOZOK	12
GEZAK	16
GEZA-GARRATZAK	12
GOZOK	7
GOZO-GEZAK	2
MIKATZAK	1

SAGARDO GINTZAREN HIZTEGITXOA

Sagardogintzaren aberastasun handi bat hiztegitxoan datza. Hemen ikusten dugu, euskara mailan urteetan zehar erabilitako hitzak galtzen doazela. Hori dena eskuratu beharra dago galdu baino lehen eta gero muntza praktika eraman.

Nola ez, sagardogintzak bere hiztegitxo berezia badu, Euskal Herriko "Lan-Ofizio" gehienak bezala. Adibide bezala hitz batzuk dakarstegu bere adierarekin. Astigarragako sagardogile batzuei jasotako hitzak dira, beraien egunoroko lanean erabiltzen duten hitzak.

- BARRIKOI:
- BERA:
- ETORRIA:
- FUERTXAK
- GO(GO)RI
- GORPUTZ:
- GRANILLO
- GRAZIA:
- KARGA:
- KAXKABEL
- LAÑO:
- LIGA: U,
- MOTEL:
- PATTAL:
- PITAR:
- SASOI:
- TXINGAR
- TXOTX X
- ZIPOTZ
- ZIZAR:

BARRIKOI: Sagardogintzak bere hiztegitxo berezia badu, Euskal Herriko «lan-ofizio» gehienek bezala. Hitzik erabilienak jakitea komenigarria izango delakoan gaude.

BERA: Gure proposamena norbaitek ongi ikusiko duen itzaropenaz, hemen doazkizue Astigarragako sagardotegietan jasotako hitz batzuk: sagardogileek bere eguneroko langintzan noiznahi erabiltzen dituzten hitzak dira.

ETORRIA: *Barrikoi.* Bazkaria edo afaria eginez, talde batek edanez, barrika tiki bat husteari deitzen zaion eginkizuna.

GRAZIA: *Bera.* Edan edo botiletan sartzeko sagardoari bere garaia etorri ez zaionean.

KARGA: *Etorria.* Edan edo botiletan sartzeko sagardoari bere garaia etorri zaionean.

KAXKABEL: *Fuertxako.* Azken estualdian isurtzen den sagardoa.

LAÑO: *Go(gor)ri.* Sagardoari edateko garaia joan zaionean.

LIGA: U, *Gorputz.* Sagardoaren osgarriak bete-betean daudenean.

MOTEL: *Granillo.* Upeletik nahiz botiletatik sagardoa edalontzira ateratzerakoan zipriztinak sortuaz, zipritin horiek sortzen dituen agerpena.

PATTAL: *Grazia.* Sagardoa edaterakoan, berak gorputz barruan sortzen duen alaitasuna.

PITAR: *Karga.* Sagardogileen neurria. Bi neurretan izena: batak, 6

SASOI: zaku sagar karga osatzen du; besteak, 250 litro sagardo karga osatzen du.

TXINGAR: *Kaxkabel.* Mozkortuta gaudenean, sagardoari ematen zaion izena.

TXOTX X: *Lano.* Upeletik sagardoa edalontzira ateratzerakoan eta garbia azaltzen ez denean baizik eta iluna, sagardo ilun horri *Lano* deitzen dute.

ZIPOTZ: *Motel.* Bizitasunik gabeko sagardoa.

ZIZAR: *Pitar.* Urez nahastuta dagoen sagardoa.

GO(GO)RRI: *Sasoi.* Sagardoaren osgarri guztiak bere une onenean daudenean.

GORPUTZ: *Txingar, Txinpart.* Upeletik nahiz botiletatik sagardoari, edalontzira ateratzerakoan, sortzen zaion apar eta zipritinen agerpena.

GRANILLO: *Txotx, Xiri, Ziri.* 4 edo 5 m/m-ko egur borobila, 10 zm. luze-koa, upela zulatzen denean dastatzeko, ixteko jartzen dena. (Gaurko egunean plastikozkoak sartzen ari dira.)


GRAZIA: *Zipotz.* Barrika, bukoi eta upeletik egnik dauzkaten zuloak ixteko erabiltzen diren tresnak. Ontziak, zulo hauetatik betetzen dira sagardoz.

KARGA: *Zizar.* Goiz sagar, ongi heldu gabe edo gaitzarekin eroritako sagarrekin egiten den sagardoa.

ASTIGARRAGAKO EUSKAL ESKOLA

Arduraduna: 1984 otsailak 29.
 X Garmendia asteazkena

egunon



Bi balea haundi gisa, elkarri muturka.— Atzo, Tokyo hiriko Honeda aireportuan, "Boeing 747" batek muturrez-mutur egin zuen bertan geldirik zegoen YS-11 batekin. Hondarribiko aireportuan sartzen diren txiki horien antzekoa da YS-11 hori. Inork ez zuen minik hartu, baina, beste askotan munduan gertatzen den bezalaxe, haundiak txikia zapaldu eta zanpatu zuen. zakur haundiak txakur txikiari egin zion kozk. (AP argazkia)

(1) .. Hitz hau bere adierarekin, desagertutako sagardotegi bateko amonari jasoa duzu.